

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

4607

239/2020 DEKRETUA, urriaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoak Pasaia Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluan dituen batzarkideak kendu eta izendatzeko dena.

Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testuategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren atariko titularen II. kapituluaren daude araututa interes orokorrekoen artean sailkatutako portuak. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Bilboko eta Pasaia portuak sartzen dira interes orokorrekoen artean.

Estatuaren lurralde-antolaketa ikusita, eta bere lurraldean dauden interes orokorreko portuek autonomia-erkidegoetan duten eragin ekonomiko eta soziala kontuan hartuta, aipatutako Legegintzako Errege Dekretuak behar diren neurriak ezartzen ditu autonomia-erkidegoek portuko agintaritzen antolaketa-egituraren partaidetza handiagoa izan dezaten. Izan ere, agintaritzaren egitura horiek portuak arteztzen dituzten organo publikoak dira.

Zehazki, Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testuategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 30.1 eta 30.2 artikuluetan ezarritakoaren arabera:

«1.– Administrazio Kontseiluak honako kide hauek ditu:

(...)

b) Berezko kide bat; kide hori itsas kapitaina izango da.

c) Bokalkopuru bat, 10 eta 13 artekoa. Kanariar eta Balear uharteetarako, ordea, 16 artekoa izango da. Autonomia-erkidegoei edo Ceuta eta Melilla hiriei dagokie kopuru hori ezartzea, baita bokalak izendatzea ere.

2.– Autonomia-erkidegoek edo Ceuta eta Melilla hiriek, c) letran aipatu diren bokalak izendatzekoan, honako irizpide hauek errespetatuko dituzte:

a) Estatuko Administrazio Orokorraren ordezkaritza bokal horietako hiruk eta itsas kapitainak izango dute. Bokaletako bat estatuaren abokatua izango da, eta beste bat, Estatuko Portuak Era-kunde Publikokoa.

b) Autonomia Erkidegoa lehendakariak eta lau bokalek ordezkatzeko dute.

c) Kanariar Uharteetan, kabilgo bakoitzak ordezkari bat izango du, eta, Balear Uharteetan ere, kontseilu bakoitzak ordezkari bat izango du.

d) Portuaren zerbitzugunea euren mugartean duten udalek Kontseiluko gainontzeko kideen % 33ko ordezkaritza izango dute. Eraginpeko udalak bat baino gehiago badira, lehenik eta behin ordezkaritza honako hauei egokituko zaie: Portu Agintaritzak administratutako portuari/ei izena ematen dien haiei; eta gero gainontzekoei: zerbitzuguneak eragiten dion udal mugarte-azalerarekiko proportzioan.

e) Kontseiluko gainerako kideen ehuneko 66a, honako hauen ordezkaritzari egokituta izendatuko da: merkataritza-, industria-eta nabigazio-ganberei, enpresa- eta sindikatu-erakundeei, eta portuen arloan garrantzi handia duten sektore ekonomikoei.

Bokalen izendapena, nahitaez, Administrazio Kontseiluan ordezkaritza duten administrazio publikoek, erakundeei eta organismoek proposatuta egingo da. Estatutuko Administrazio Orokorraren kasuan, Estatuko Portuak Erakunde Publikoko lehendakariak egingo du proposamena.

Administrazio Kontseiluko bokalen izendapenek, lehen apartatuko c) letran aipatzen direnek, lau urteko indarraldia izango dute. Izendapena berriro ahal izango da, alde batera utzi gabe hurrengo leerroaldean ezarritakoa.

Kontseiluko bokalak kargutik kentzeko erabakia autonomia-erkidegoko organo eskudunak hartuko du, bokal horiek ordezkatzeko dituzten antolakundeei, organismoek eta erakundeei hala proposatuta».

Horiek horrela, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean eta Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritz, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren proposamenez, Gobernu Kontseiluak 2020ko urriaren 27an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.— Ondoren zehazten diren pertsonak Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko bokal-kargutik kentzea, Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunak hala eskatuta:

Antonio Aiz Salazar jauna.

Ignacio M.^a Arriola López jauna.

Alexander Arriola Lizarriturri jauna.

2. artikulua.— Ondoren zehazten diren pertsonak Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko kide izendatzea, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko Saila ordezkatzeko jardungo dutenak:

Aitor Etxebarria Atutxa jauna.

Luis Pedro Marco de la Peña jauna.

Aitor Urzelai Inza jauna.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek ondorioak izango ditu Pasaiaiko Portu Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko lehendakariari kargugabetutako eta izendatutako bokalen berri ematen zaion egunetik aurrera; dekretua, bestalde, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urriaren 27an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.